

BETION TELELAGUNTZA (24 ORDUKO URRUTIKO ARRETA)

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen pertsona heldua > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

>75 urteko pertsona,

>65 urteko pertsona **arrisku-egoeran**,

Mendekotasuna duen pertsona.

Kostua

4 euro hilean (2024an), baina salbuespenak egon daitezke bizikidetzako unitatearen **diru-sarrerak** kontuan hartuta.

Baldintzak

75 urte baino gehiago eta bakarrik.

Edo 65 urte eta mendekotasun arriskua.

Edo menpekotasunarekin.

Zertan datza?

Telealarma bat da, erabiltzaileei aukera ematen diena arretra-zerbitzu batekin berehala harremanetan jartzeko, egunean 24 orduz eta urteko egun guztietan ([1.6 fitxa](#)). Hori guztia egiteko, etxean terminal bat eta erabiltzaileak eraman beharreko sakagailu edo domina bat jartzen dira. Ikus erabiltzailearen gida [esteka honetan](#).

Norentzat?

- Bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonak, edo
- Mendekotasun arriskuan dauden 65 urtetik gorako pertsonak edo
- Mendekotasun onartua duten pertsonak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Telelaguntza-zerbitzuaren **kostua hilean 4 euro da** 2024an. Salbuespenak edo murrizketak ezartzen dira, bizikidetzako unitatearen diru-sarreraren arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

75 urte edo gehiago izatea eta bakarrik bizitzea, edo

65 urte baino gehiago eta mendekotasun-arriskua izatea, edo

Mendekotasun onartua, edo

Gizarte-isolamenduaren arriskuan egotea, Udaleko Gizarte Zerbitzuen arabera.

Non eska dezaket zerbitzua?

- BetiOn Telelaguntza Zerbitzuaren ataria: [Web orrira joan](#)
- Zure auzo, udalerri edo eskualdeko oinarritzko gizarte zerbitzuak.
- Aurrez-aurre [Zuzenean](#) bulegoetan.
- Zure auzo, udalerri edo eskualdeko oinarritzko gizarte zerbitzuak

[Kontsultatu informazio osoa](#)